



SESTAO BERRI 2010, S.A.

Sozietatearen izena

Sestao Berri 2010, S.A.

IFK

A95378014

Izaera

Sozietate anonimoa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Ez da aplikatzekoa.

Sorrera

Sozietatea 2005eko uztailaren 11n egindako eskritura publiko bidez eratu zen. Hala egin zen Sestaoko Udalaren 2005eko maiatzaren 31ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren ondoren, eta 2005eko maiatzaren 31ko osoko bilkuran hartutako beste erabaki batek osatuta, xedapen honi jarraituz: [71/2005 DEKRETUA, apirilaren 5koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari Sestao Berri , S.A. sozietatea eratu eta sozietate horren partaidetzak erosteko baimena ematen diona.](#)

Sail-atxikipena

Enplegua eta Gizarte Politikak.

JESN

7111 Arkitekturako zerbitzu teknikoak.

Helburu soziala

Sozietateak honako jarduera hauek ditu helburu:

- a) Txabarriren barne-erlaketarako plan bereziaren garapen integrala.
- b) Jose Antonio Agirre Kale Nagusia, Sestaoko zabalgunearen ardatza, eta haren alboko Sestaoko Ekialdeko sarbidea, Ballontiko korridoretik datorrena, luzatze aldera bide-sistema orokorretarako desjabetzeetan, erosketetan eta eraispentetan onuradun gisa jardutea.
- c) IZARTU 2001-2005 planean zehaztutako jarduerak egiteko hirigintza-planak, proiektuak, kudeaketa-programak eta haiei lotutako programa sozioekonomikoak idaztea.
- d) Txabarri-El Sol barne-erlaketarako plan berezia benetan garatzeko aholkularitza tekniko eta kudeaketarako aholkularitza.
- e) Lehen deskribatutako eremu desjabetuetako industria-jarduerak eta negozioak lekualdatzea eta haiei orientabidea eta aholkularitza ematea.
- f) Lehen deskribatutako eremu desjabetuetan edo erositako eremuetan zeuden etxebizitzetako biztanleak lekualdatzea eta haiei orientabidea eta aholkularitza ematea.
- g) Eusko Jauriaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailarekin lankidetzan jardutea, udalerrian bizi diren eta arazo asko dituzten familiei beste toki batzuetan ostatu emateko hartutako konpromisoak betetzeko. Halaber, hiria berritzeko alorrean, ekintzaileen eta enpleguaren esparruan eta gizarte-integrazioaren eremuan lankidetzan jardutea.

h) Sestaoko plan zuzentzailearen Zuzendaritza Batzordeak agindutako jarduerak egitea, Akziodunen Batzarrak onetsi ostean.

Sailkapena kontabilitate nazionalean


Administrazio publikoak - Eskualde Administrazioa.

Kapital soziala

60.102 €

Kapital sozialaren osaera

EAEko Administrazio Orokorra	% 50,00
Sestaoko Udala	% 50,00



Administrazio Kontseilua

Honako hauek dira 2012ko ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Administrazio Kontseiluko kideak:

Juan María Aburto Rique jauna	EAEko Administrazio Orokorra.
Josu Bergara López jauna	Sestaoko Udala.
M ^a Covadonga Solaguren Santamaría andrea	EAEko Administrazio Orokorra.
José Luis Marcos Merino jauna	Sestaoko Udala.
Ignacio Basáñez Alfonso jauna	EAEko Administrazio Orokorra.
Ernesto Ramírez Lahuerta jauna	Sestaoko Udala.
Marcos Muro Nájera jauna	EAEko Administrazio Orokorra.
Oscar Rodríguez Pérez jauna	Sestaoko Udala.

2012ko ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena

[Auditoria-txostena eta urteko kontuak 2012ko abenduaren 31n, eta 2012ko ekitaldiko kudeaketa-txostena.](#)

2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	5.516.784 €
Ondare garbia	2.321.457 €
Negozio-zifraren zenbateko garbia	150 €
Batez besteko langile-kopurua	11,12

Sozietatearen helbidea

Hiru Kontzejuen Plaza 1, beheko solairua - 48910 Sestao (Bizkaia)

Webgunea

www.sestaoberri2010.com